

{ asteari zeharka begira }

Izaro ZINKUNEGI BARANDIARAN

Postalak

Ohi baino gehiago luzatutako lorategiko belarrak. Ohi baino hutsago dauden izozkailua eta kontserba potoak. Ohi baino hauts gehiago hartutako etxeako altzariak. Ohi baino handiago bihurtutako irakurri beharreko liburuen multzoa. Ohikotasunetik kanpoko seinaleak dira maiz agenda beteen eta aste lanpetuen emaitza.

Halako seinaleek harrapatu naute ezohiko opor as- tean sartzean. Ikasturtea bere zurrunbiloaren gorene- ra iritsi denean, atsedenerako tartea daukat. Atse- denerako, eta ohikotasunetik ateratako horiek guztiak berriro ere euren –edo nire– ordenara itzultzeko.

Lehentasunen hurrenkeran korapilatzea izan dai- teke halakoetan tranpa egiteko modu bat, baina ho- rri ihes egin, eta etxea garbitzen hasi naiz. Korrido- rean batetik bestera dabilTZan hauts bolatxoak bildu, komuneko ispiluan pilatutako arrastoak garbi- tu... Egongelako apalei hel- du diet gero. Han topatu ditut aspaldi begiratu ere egin ez nien bi postal: Kios uharteetakoa bata, Pana- makoa bestea.

Sofan eseri, eta irakur- tzeari ekin diot. Zigiluek ez diote gezurrik: seina urte igaro dira jadanik ja- so nituenetik; bidali zizki- datenetik. Jaso ditudan azken bi postalak dira. Jaso bai, baina azkenak noiz bidali nituen pentsatzen ja- rri naiz. Eta historiek 24 ordu baizik irauten ez du- ten garaiotan, hamarkada bat egin dut atzera me- morian.

Uruguain geunden orduan lagun min bat eta biok, ikasketak tarteko. Bertatik bidali nituen Montevideo- ko argazkiekin egindako postalak Euskal Herrira, han- go zatitxo bat hemengoei helarazteko asmoz. Ez dut gogoan nori bidali nizkien, ezta zer idatzi nien ere. Iri- tziek 280 karaktere baizik ez dituzten garaiotan, pos- tal atzean mundu bat konta litekeela otu zait.

Hamarkada bat igaro da azken postal haiek Uru- guain idatzi nituenetik. Eta zenbat aldatu diren gau-

zak ordutik itsasoaren bi aldeetan. Gogora etorri zaizkit hankak han, baina burua eta bihotza hemen zituzten lagun haiek, haietako bi bereziki. Beso zaba- lik jaso gintuzten euren etxeetan, geureak ere bazire- la sentiarazteraino. Eta postal banatan Euskal Herri- ko mundu hau, mundu berri hau kontatu nahiko niekeela sentitu dut.

Kontatuko nieke Euskal Herria aldatu dela, aldatzen ari garela. Kontatuko nieke bide horretan mugarri atzeraezin bat jarri berri dugula. Kontatuko nieke eu- ren ekarpena ezinbestekoa izan dela. Kontatuko nieke oraindik ere bide luzea dugula egiteko, baina egingo dugula. Eta kontatuko nieke eurek hori guztia bertatik bertara ikustea eta sentitzea nahiko nukeela, jakina- gatik, tamalez, bietako batek ez duela honezkero au- kerarik izango.

Kontatuko nieke Euskal Herria aldatu dela, aldatzen ari garela eta bide horretan mugarri atzeraezin bat jarri berri dugula. Kontatuko nieke euren ekarpena ezinbestekoa izan dela

Euren tokian utzi ditut Kioseko eta Panamako postalak, aspaldiko partez hautsa kenduta. Ondoko baldako albumean argazki bila hasi naiz; hemengo za- titxo bat Uruguaira bidaltzeko irudi bila; kontatu nahiko nukeen hori guztia idazteko toki bila. Aparta- tu ditut haietako bi, eta logelako mahaitxora egin dut.

Han topatu dut irakurri beharreko eta atzeratutako liburuen tontorra. Lorategiko belarrak ikusi ditut leihotik, ohi baino luzeago. Hustutako kontserba po- toek ere sukaldeko mahaian jarraitzen dute. Une batez zalantza egin arren, boligrafo bat hartu, eta argazkien atzealdean idazten hasi naiz. Opor astea da, postalen eta kontatzeko mundu berrien garaia. Ohikotasunera- ko itzulerak itxaron dezala beste pixka batean. •